Euzkotar umien aldez

Decroly osagillien irakurten erakusteko ikus - gogai - era

"Ume-istijak amai bako sorkundea eskatzen dau. Augaitik, irakasle burutsubak, muga gaŕen baŕuban sirkiñik egin ezinda, urten dagi Ume-istijen muga bako zelai baŕijetara."

Claparede.

Izki-eraren aiderantzira egiten da lana Decroly'n ikus-gogai-eraz.

Oregaz izkitik asten gara, silabaz jaŕaitu, gero itzak eta azkenez esaerak irakuŕten irakatsi. Oregaz esaera osotik asi, gero itzak geroago silabak eta azkenez izkiak.

Oregaz, iraŕkolako izkiak irakasten dira lenengotan gero esku-izkia. Onegaz esku izkitik asi ta gero irarkola-iztira jo.

Ume-irti gai onetzaz euzkeraz idatzia gauza gitxa da, baña poz-pozik, geure ele maiteaŕen aldez indaŕ bat egitiaŕen, eta euzkerea kortuko aberiatzaz eta soloko gauzatzaz bakaŕik erabili leikiala esan dudan gixontxu bati erantzupenik onena emotiaŕen idatzi dot.

Bardin, era beŕi au zelan erabilten dan idatzi zatia ez da ain gauza eŕeza. Ume batzuekin eŕarago azalduko neuke, baya al dodan lez esan biaŕko dot gauza txikijak itxi eta andijenak esanik.

Era onegaz irakuŕten eta idazten irakasteko beaŕ diran gayak edo materijala irakasliak berak atondu beaŕ dau, bere ikastolako ta bere umien biaŕ-ixanen auŕian eta era au olan erabiltzen da.

Ingi-gogoŕ edo kartoi txatal batzuetan izki garbi eŕenagaz eta izki nagosi barik amaŕ bat esakun idatzi. Esakun oneik agintak ixatia onena da. Esaterako: "eskubak sakelian saŕtu egixuz" "gorantz begiratu egixu" eta abaŕ.

Oneik kartoi txatalak umiai erakutsi, begiratu dagijuela agindu eta zeŕ diñuen esan. Gero umiai galdetu ia kartoyak zeŕ diñuen.

Ume bakotxari idazkun bana emon eta zu diñuana egin dagijela agindu.

Irakasliak agintxa areitako bat pizaŕan idatzi eta au diñuana umiari egin dagijela agindu. Agintza umiak idatzi dagijela eta abaŕ.

Irakaslari burutsu baten anei aldakuntza, danak baŕijak, emon leikijoz ikaskixun oni.

Beaŕ dan beste asti emon biaŕ yako lenengo ikaskixun oni ta baita best ai be. Geyenian amaŕ edo amalau alditan ondo ikasten dabie lenengo au.

2'g. Ikaskixuna. Ingi-gogoŕ edo kartoi zati batzuetan umien ixenak idatzi izki nagusi barik, olan: Miren joseba, terese, iñaki, ta abar

Ume bakotxari bere ixendun kartoya erakutzi eta esan an miren edo joseba, edo terese, diñuala ta begiratu dagijuela.

Gero bakotxari bere ixena idatzi dagiela agindu.

Ixenak nastau ta bakotxak beria artu dagijala agindu.

Ume bakotxari bost edo sei ixen emon eta bakotxa bere jaubiari emon dagijola esan.

3'g ikaskixuna. Ikastolako gauzen ixenagaz egiten da. Len erabili doguzan lako ingi-gogoŕ-txataletan, ikastolako gauzaen ixenak idatzi. Esaterako; maya, artasijak, ulkera, lapitza liburuba, leyoa, leyaŕa eta abar.

Umiai ixenok erakutsi, eurak ezagututen dabezan igertako beste ikaskixunetan lez lana egin, au da, irakuŕi, idatzi, nastau ta bat edo bestea artzeko esan, gero ume bati bost edo sei kartoi-txatal emon eta ixenok gauza bakotxaren ganian ipinteko esan, esaterako; artagijak diñuan txatala artazijen ganian maya diñuana mayen gañian eta abaŕ.

Txatal bat umiai erakutsi eta arek diñuana ekarteko esan. Esaterako irakasliak idatziko dau pizaŕan "lapitza" eta esango deutso ume bati: "Emen diñuan gauza ekaŕi egidazu".

Edo gauzea bera erakutsi eta esan: "Gauza onen ixena idatzi egixube, eta abaŕ, eta abaŕ.

Umiak ez-zultzen diŕubezan garaunakaz egin leike beste ikaskixun polit bat.

Kajatxu batzubetan ipinten dira babaŕan goŕijak, babaŕun zurijak, urtija, txiliota, garija artua eta abaŕ, kajatxo bakotxa'k bere ixena idatzita imiñi.

Umiai erakusten yakez gauzok eta itandu: —Au zer da? —Garija—erantzungo dau. —Au ba emen idatzita ixen ori berori. Emen orixe bera diño "garija".

Gero kajatxuen baŕuban dagozan garaunak trayen gañera atara eta itandu umiai: —Oneik baba goŕijok nun gordeko doguz? —Ia sartu egixubez garaunok bakotxa bere kajara. —¿Nun dago garija? —Ia ekaizu artoa.

Idatzi egixube danok "urtija" eta abaŕ eta abaŕ.

Oneik kajatxok danak bardiñak ixan biaŕ dabiela esan biaŕik ez dago irakasliari.

(Daŕaike)

AŔITOKIETA.

ERRIJETATIK

ERRENDERI

Asi dira emengo jayak, eta naiko eresi entzun beaŕean gaude; bada nola bertako eresbatza eskeñi zan utzean jotzeko jai oyetan; jai obek antolatu dituztenak oaŕtu gabe putz egin beaŕ dutela ereslariak, eresi-otsa entzun dedin, ereslari eŕukaŕiei biaŕkunak ipiñi diokate goiz aŕatsalde eta gau guzia, españaŕak eta euren oiturak maite dituztenak dantza lotua egin dezaten gau eta egun.

Abeŕtzaleak ere eskeñi genun geren laguntza, eta egitaraua biali genion eŕiko ziñegotziei bertan irakuŕi zezaten gure gain artuaz egun bateko jayaz (20), ogei txistularien biribilketakin asiera emango geniola, jaŕaituaz euzko-kirol ,txistularien erestaldia, Gipuzkoa'ko txapeldun diran pelotariekin jokaldi edeŕa izugaŕizko dantzaldiak (200) beŕeun ezpatadantzari eta gorulariekin eta amaitzeko "Iru gudari" antzeŕki edeŕa, bertan biltzen zan txindia ugaldiakin kalte izan dutenan alde izanik eta... ¿badakizute zelako aŕaxtasunak eman dizkiguten gure eŕiarentzat jai oyek egiteko?

Eskertaŕ ziñegotziak, azkatasuna itzetik itzera darabilkitenak, garbi azaldu digute, alegia orain dala bi urte ezpatadantzariak gure ikuŕin maiteakin enparantza dantza irten giñalako, ia jan zituztela euren aldeŕdietan, eta ezin zezetekela utzi ezpatadantza ori egiten, eta bere ordez makildantza egiteko. ¿Ori ere badegu.

España, jakintza zer dan eskakin eŕi ortatiz gozak etoŕi onera eta auzartu guri esatera, euren Euzkadi'n, gure etxean gure ikuŕin maiteakin dautzik ezin genezakela egin? bañao... ¿losik ezagutzen al-dezute? ¿Uste al-dezute gu España edo Prantzi'ra juango bagiña asiko giñakela bartakoak maite dituzten gauzan auŕka?

¡Ez, guk beste abendeŕitan eurak—bertakoak—nai dabena egitea nai degu: eta geurean geuk gura doguna!

Nor bere buruaren jabe izatea gura dogu, eta oŕetarako abeŕtzale izatea beste biderik ez dago.

Esnatu zaitezte bada zeuen abeŕia ezagutzen ez dezuten euzkotaŕak, eta ikasias maiteko dezute seme-alaba onak lez, eta orduan ezin ibiliko zerate gure eŕiaren auŕka darabiltzazten oyekin.

"Iru Gudari" antzestutzeko ere españaŕ bati baimena eskatu beaŕ genion, eta auŕetik esan aŕen jai oŕekin biltzen zan txindia ugaldiakin kalte izan dutenan alde izango zala; ezin zezakela Victoria antzokia guri utzi erantzun zigun eta gure etxean gure jai garbi obek egiteko izan ditugun aŕastasun oyekin, ikusiko dezute ezin genezakela euzko jai edeŕ oik egin euzkotaŕ batzuek lagundutako español pultura gabeko batzuen mende bizi geralako.

¿Noiz aŕte?

BIRIATU.

AZPEITIA

UDAL-BATZAŔA.—Astoro bezela zateartez egin zan. Ziñegotzi geyenak Batzaŕeratu ziran. Lenengoz ila onen 30'an ordiziaŕak eratuta erabakiko dan Gipuzko-txapeltza antolatzen dun Batzordearen idazki bat irakuŕi zan. Eskabide batzuek egiŕen zituzten, Udalak txiŕindariak igarotzeko bidea azke utzi ta zaituko zuala adierazi zun.

Langabetasunaren auŕka egiteko dagon Bazkun baten idazkia irakuŕita Bazkun oŕek argitaltzen dun aldizkungia ikusita beronenatara aŕpidetzea ona dan edo ez ikasteko uŕengo batzaŕerarte ustea erabaki.

"Orbegozo y Compañía" Bazkunaren izenean Astigaŕaga'taŕ Eŕoka'ren idazkia irakuŕi zan. Urkako deritzayon lekuan zugatzak ugetzat jaŕi al izateko Aizpuru'taŕ Sebasten'ek egindako eskidazkiaren beŕiba zuela zesan. Lenago ganea ori beaŕ bezela ikusita dagola eta Udala ez atzipetzeko uzteko. Oŕetarako bere azalpenak ba, zegizkin. Gai oŕetan Udalak zer egiñik etzeukala erabakitzeko edo Aizpuru'n eskabidea deusezteko eskatzen zun. Sorazabal, Agiŕe ta beste ziñegotziak onetzaz ziarduten eta Udalak zeregiña etzala askenean erabaki zan.

Aldundi-Ixunaren idazkia ikusi zan. Zaindari jayetarako 250 lauŕleko zoroskitzat damazkitela zesan.

Aztira dagilearen iritzi bat irakuŕi zan. Makasti basetxeko Kerexeta'taŕ Imanol'en gaxotasunetzaz. Donostia'ko gaxotegira eraman beaŕ litzakela ebakuntza bat egiteko. Sendi oŕen txirotasuna esaguturik Astiria'ren iritzia ontzat eman zan eta ango eralgitzak Udalak ordaindu ditzala.

Arantzadi'taŕ Ingartzi'n "La casa solar vasca" idaztiaren iyeki bat erosteko.

Orbegozo'taŕ Toma'n idazkia ondoren irakuŕi zan. Zaindari jayetan, zelai txikian auŕeko urtietan bezala ardaudegi'ko erariak Galtzeko baimena eskatzen zun. Ardandegi asko diralako egun oyetan eŕiko sei, txaide ta egurastokietan lekuak artzen dituztenak guzientzako 5 lauŕlekodun ordainkizuna ezaŕtzea Udalak erabaki zun. Ila onen 25'rako ukabil-jolasketa bat antolatu nai luken Batzoŕdearen eskidazki bat irakuŕi zan. Udalari, zezen-enparantza duan eman eta soroski baten bitaŕtea laguntzeko zezkayon. Udalak beŕiz beste jolasketan bezelaxe antolatzale oyek ere bildutakotik egureko amabost ordaintzeko, eta jolasketa-beste zergak, erabaki.

Endoreak, eta datozen egunetako baten erbaŕutiko endorean Batzaŕ bat egingo zala, gure eŕian adierazi zun. Birketako gaitza aurka noia egiteko itzegingo dala eta oroŕari Zuaŕiz'taŕ Dorota etoŕiko dala Ziñegotziak nai badute joateko. Beste gabe amaitu zan.

KIROL.

ARRONA

Gure umiak atseden aldiyakin dabiltz ikastolik gabe.

Azpeitia'taŕ Baleriano'k duan aurtxoa, larunbatian ugutzatu zuten.

Napar eŕian egun batzuk egin ondoren agurtu degu Goŕiti'taŕ Karmele.

Erkisketa-bekoan il dan aurtxoa astelenian lurperatu zuten.

Eŕiko zaindari dan Estepan doneari bederatziuŕena egiten ari gera.

Kutrulu-etxe eŕiari telatu beŕia ipiñi diyote. Eŕamu berdia ertz batean ikusi diyogu.

IZPERKARI.

MAÑARIA

ESKEŔAK.—EUZKADI izpaŕingijaren bitaŕtez bijotzez eskaŕtuten dodaz Bustintza'taŕ Ebaista (G. B.) zanaren jaupara etoŕi ziran gustijak. Baŕa eskeŕak emoten deutsataz Ibaŕa'taŕ Eŕupin txaunburu jaunari, ta bere laguntzale ixan ziran Baŕenetxea'taŕ Polentzi ta Belaustegi'taŕ Pantzeska jaupari jaunari, jaupea abestu eben gustijei ta txauneskindari Saŕionandia'taŕ Joseba Mirena'ri.

Eta berarizko bat Durango'ko Emakume Abeŕtzale-Batza'ko lendakarija dan Areitio'taŕ Gixane eta Oleaga'taŕ Josebe andereñuei oneik, ba, lora edeŕak ekaŕi ebezan ilobija apainduteko; baña galazota egualako ilobira juatia, eurakaz apaindu gendun geure Ama donokikua, eta Gurutzeko Aŕa, basatxaunuan. Eurok ordainduko deutzube gustijoi. Alan eskatuko deutsat neure gogo gustijaz.

Bustintza'ren 'Alargunak.

BERMEO

JUAN DA.—Lengo astian il zan, amabosten bat egun gexorik egun ostian, Alika'taŕ Matalen emakume zintzo-zintzua. Azken-tokira lagundu eutsoen amaikatxu notiñek. Ain ona zan emakumelirañá gustijak mate eben-eta. Artu begije aren gurasuak neure tamal-aguŕik zintzoena.

JAYOTZA.—Abeŕtzale jayua dan eta S. A. lagundiko "Igotz-mendi" zama-ontzi ko buru dan Tradua'taŕ Emilen eta emaztiak, Agiŕe'taŕ Gentzane'k ixan daben alabatxu baŕijari Miren Gentzane euzkel-ixena imiñi dautse. Ortube'taŕ Peli eta Agiŕe'taŕ Eŕose'k besuetan aŕtu eben. Zorijonak sendikuai.

MATALEN-EGUNA.—Aurtengo Matalen-eguna, aspaldiko egunetarik edeŕena ixan dogu. Goxian itxasoz ixan ziranak be aŕatsaldian etoŕi ziran eta poza ugari zan.

GAZI-GOZUAK.— "Baŕensoro" idazliaren idazti baŕi au emen dogu salduteko. Iñok nai ba-dau eskatu begi.

URKIDI.

LAZKANO

"Lauaxeta,,'ri: ¡Zorion biribil-biribilak Euzkaldunan bota zendun itzaldi jatoŕ-agaitik! bañan goguan aŕtu atera dedan bertso au:

Jauŕlari dagoan aŕtean,
Bizkaya'n, Teotico Sevilla
Alpeŕik joango zerate,
aŕazoyaren bila.

Idazle beŕiak ala...?: Idazleok zeŕ edo zeŕ idatzi degula-ta, atzaldu zaizkigu zirika, "Gaste Bat", "El Dia,,'n ta "Onalde" EUZKADI izpaŕingin sutsu onetan bat ixildu ote dan nago ta bestea... bein asi ta erori, idazle beŕiak ez bañan (neu auŕeti nazela) ume beŕiak ote diran nago.

MENDIGOIZALEAK.—Igandean Aralar mendira joan ziran, euzko-aize fiña ausnaŕtzea, emengo mendigoxale talde bat, jaŕai euzko, oiturak zabaltzen.

¡EUZKEREA, EUZKEREA! — Uri onetan geŕtatzen da geŕtakai negaŕgaŕia gustiz zendatu beaŕ degu. Gazteleŕian bagiña bezela emengo abeŕtzaleak (denak ez) eŕdera erabiltzen dute, batez ere umiak. Apaiz ikasleak ere bai. Jakin beaŕ degu, guk erabiltzen degulako erabiltzen dutela, umiak; ia ba, beŕiz ez...

—Igandean Donostiratzeko, gogoŕ dabiltz gure dantzariak, euren dantzak beŕitzen. ¡Abeŕtzalea! Igandean aterako zaigun EUZKADI ez geldtu erosi gabe, ia ba abeŕtzale geŕtu!

IRAMENDI.

MURELAGA

EZKONTZA.— Etxebaŕieta'taŕ Genar abeŕtzale gastia ezkondu da Elortza'taŕ Miren Elixabete neskatila gastiagaz. Zoriion ugarijak opa dautzubadaz zeben bixitza baŕijan.

DABILTZENAK.—Gazteiz'tik gudaritzatik etoŕita ilabete etxian igaroten emen dago geure lagun eta abeŕtzale zintzo Urkidi'taŕ Andeŕ.

AŔPIDIA.—Gipuzkoa'taŕ geure anayen alde aŕpidia edegita dago eŕi onetako Uri-Buru Batzaŕa eta emoteko ustia dabenak emo beye ainbat ariñen bada Bizkai-Buru-Batzaŕa'ren aginduz il onen aztenian saŕatuten da aŕpidia.

MUÑITUBAŔ'ERA.—Igandian ila on 30'an ango abeŕtzaliak eralduta ixango diran jai ospatsubetara juateko gaŕ aundija dago, batez-be an ixango diran itzaldijak entzuteko. Badakixube ba eŕitaŕak zaŕ da gaste danok igandian Munitubaŕera juan biaŕ gara.

EUZKEL-IXENA.—Kareaga'taŕ Bitoŕ ta Gojenaga'taŕ Bingene senar-emaztiak alabatxu bat ixan dabe, ta ugatzan Jone euzkel-ixen poliŕa ipiñi dautse.

Aŕa-amabitxijak Zuazo'taŕ Kermeilda ta Etxearte'taŕ Gotzone abeŕtzale gastiak. Zorijonak ba guraso ta aŕa-amabitxi zintzuni.

GANURKULU.

LARRABETZUA

PATXIKOKERIAK.—Igazi zan asteko larunbatan gure udalak asteroko batzaŕa ixan eban, neu tamalez enintzan eldu, baña entzun dodanez patxikokeri andijak esan eidiŕuez gure "zaŕonzale" ziñegotzijok, orduba zan izketan asteko oñaŕte bai, bai, ta ez, besterik eztabe esaten ixan-eta.

Baña batzaŕ oŕetan jayetarako egiŕaraba erabagi biaŕ-zan, eta bai, ba, gure udalak azkeneko uŕtietan lez euzko-usañeko jaitxubak geŕtau nai dauz ta oŕek emoten dautse tripetako miña, eta asi zan batzaŕa ainbat notin egoan ikusten, eskeŕ-eskumakuak alkaŕegaz ei-egozan, bai, ba; emengo eskeŕtaŕak santu egingo litzakez abeŕtzalien auŕka egiŕiagaŕik eta karlataŕak infernuko biuŕtuko litzakez, gure auŕka egin-ezkero, dana dago ondo; baña guazan lenera, "zaŕontzaliok" asi ziran izketan, iñoen egiŕaraba ontzat aŕtzen dabela, baña Galdakano'ko erespatza elitzakela ekaŕi biaŕ ori baño obiak dagozala-ta (estakit non).

Baña gure endore jaunak argi ta garbi itz-eginda (mutila da gero berau izketan) nondik urten eztakijela ago bete azufeŕegaz itxi ebezan, baña bein asi ziran-ezkero, zozertxu egin nai ixan eben-eta, gero, ostera, erespatzik etzala biaŕ-esan eben, eŕian "ekonomia" egin biaŕ dala-ta.

¡A! "ekonomia" zubek? ¿Etzarie gogoratzen beñolako lau anei (mila) ogeŕleko jan-edanekuak? Guazen auŕera; au amaŕuzanian ezpatadantzari eta gorularijari be ikututxu bat egin biaŕ eta gure "patxikok" astakeri andi bat esan ei-eban. ¿Zer uste dozu, irakuŕle? Astakeri andijagorik eztot uste iñoz entzun ixango dozunik, ezpatadantzarijak jantzan egiŕen badabe.

Batzokijak jaten, ondo emon deyoela. Oneri baŕe algara andi bat eginda eneuskijo erantzun biaŕ baña, kokoen batek aintzakotzat aŕtu leike-ta, zeozertxu esaten noya. Badakixu, "patxiko", gure ezpatadantzari aldrak 34 lagun dirana lai bidaŕ jantzan egin biaŕ dabenez, 34 lauko 136 dira ba nik ustedot 30 ogeŕlekogaz edeŕto jaten eta edaten emon leikela. Zuk, biaŕ bada emon zeinke uskuŕtzale ona zaranezkero. Josukistok egin ebana egingo zeunke-ta, arija ogi biuŕtu eta ura ardau, bestela gaiztxu deritxot.

Ia, ba, txunaŕ-baŕiđun "zaŕonzaliok" oinguan "exitoa" euki dozube ta auŕera datoŕen larunbatian eldubat egingo dot, ia ze'ako diskurzuak entzuten doguzan.

ELEXALDE.

MUNGIA

Mungia'ko Euzko-Gastedija'k geŕtauta Zumetxaga'n ila onen 30'gnan. ospatuko diran jai-abeŕkoyen.

Egiŕaraba

Goxean 9'etan.—Mungia'ko Euzko-Gastedijtik uŕtekerea.

Jaupea 11'tan. — Zumetxaga'ko Mikel Deunaren basatxaunuan "De Angelis" deritxona abestuko da.

Jaupea amaŕuta Mungia'ko gastetxuen euzko-jolasak.

Ondoren auŕeskulari eŕime ta entzutetsu bik auŕeskua egingo dabe.

Aŕatsaldian 3'etan.—Agurtza Deuna.

Aguŕtza ostian baŕiro Mungia'ko gastetxuen jolasak.

Jaŕaŕuan itzaldijak, itz eginko dabe:
Altuna'taŕ Libe anderañuak.
Epaltza'taŕ Jon Imanol.
Zabala'taŕ Josu.
Goyenetxe'taŕ Eukeni (Laburditaŕa).

Itzaldi biŕaŕtian Ormaetxe amalau urteko gastetxubak itzeneutuak (bertsoak).

Ilundraŕte txistularijakaz euzko-dantzea

¡Eup! Mungia ta ingurubetako abeŕtzalia gustijok Zumetxaga'ra ila onen 30'gaŕenian.

SEGURA

ITZALDIA.—Biatoŕ Deunaren anayak lenago zuten ikastetxean eta anai berak irakasle dirala "Gurasoen bazkun orokaŕak" edo Asociación católica de padres de familia'k orain daukan "Arantzazu" ikastetxean ikastaldianen azkena, igandean ospatu zan, ikasleai sariak eman ,antzeŕki edo teatro lege bat ikasleak abesti ta abaŕ egin eta ondoren itzaldia egiñaz.

Itzaldia, "eskribauak" lenengo egin zuen Itzaldi edeŕa, baña eŕderaz eta geyenentzat alpeŕik, eskeŕak ondoren Berasategi'taŕ Toma apaiz jaunak euzkeraz beŕitu zuela eta geyenok jakiñean ipini zituala oraingo irakaskintza edo enseñanzaren gora beretan.

AGUŔTU.—Madrid'tik etoŕita agurtu degu Aranburu'taŕ Jon osalari gaztea.

JAYAK.—Donosti'ko Euzko-Gastediak eta Gipuzko Ezpatadantzari batzak atera duten iragarki edo "Kartel" edeŕa or-emen ikusi, degu gure zaindari Iñaki Deunaren eguneko jayaldi bikañak iragarki edo anunziatuaz. Jai ikaragaŕi ikustera Donostira gabe ezin gelditiko gera.

Peria "Santio" eguneko peria, garai baten ospetsua batzan ere, asko galdu zaigu eta peri antz gutxi iza ndegu. Zegama'ko eresbatza edo bandea ekaŕi zuten arpidean zerbait bituta eta... eldutako dantza pizka bat egitea izan da izan dan aldakuntzarik. Eta ni leuean gelditzen naiz, "Librekoak" jo balitu askoz dantza geyago egingo zala.

"ABEŔI,,'RI. — Igandean Jaungoikuak lagun or izango gaituk eta lau sarde edo sarde bat eta laurentzat urazea gertatzeko agindu beardiak, bero onekin janari egokiagorik etzegok eta.

USTE GABE.—Igandean emen agurtu genduan "Zaloña" idazle lagun gaztea, Idiazabal'en itzaldia eman ondoren. Itzaspertu bat egin ete "Elgoibar'era arte, esan zigun.

JAYOTZA.— Aŕabiela'ko Lardizabal'daŕ Pantzeska (Francisco)'ren emazteak alaba izan du. ¡Zorionak!

OTAŔA.

Iñoskentzi deuna doipuruba

Iñoskentzi deuna doipurubetarik lenengua ixan zan ixen oŕegaz doipuruben bakaulkijan jaŕi zana lareun eta bigaŕen uŕteko oŕila-amasaspigaŕenan.

Albano'n (Italia'n) jayo zan: Aŕaren ixena beria lete Iñoskentzi ixan zan.

Arcadius ta Honorius Orma'ko agimendunak zirala geutza aundija ixan leban Doibatzak: eleukazan lenagoko agimendunakin ixan leuzan atzipenak, atozkabiak eta jasaŕpenak.

Iñoskentzi deunari, be, baña etxakozan atsekabiak uŕin juan beragaz etxian ixan leuzan ugari-ta.

Doibatz-buruba Iñoskentzi zala godaŕen bakalduna Al-rik ixan zan: Orma'ra eldu ta indaŕez beretzat irabazi leban. Txadonakaz itzal aundija ixan lebanaŕen osterantzeko gauzakaz eleban itzal piskarik, be, euki; gustija sakala ta galtzakundia baño etzan. ¡Abai-zala benetan negaŕgaŕija!

Aldi atan Iñoskentzi deuna Ravena'n leguan: Honorius agimendunagana juan zan Al-rik bakaldunaz-gentza arazuetan alkaŕ-aŕuteko.

Beste atsekabe aundijan be ixan leban Iñoskentzi deunak. Constantinopolis'ko gotzaña Jon Kirtsostoma zan ango agimendunak Arcadius ta Endore zirala. Eta agimendunoik Joi. eŕbesteta egin leben salatzale guzuŕtijai jaramon eta amoŕ-eginda Ori bakaŕik be etzan ixan gusti-gustija: Jon Kirtsostoma deuna eŕbestian il zan.

Ori zala-ta Iñoskentzi deunak Arcadius ta Endoxe Constantinopolis'ko agimendunak axatu egin leuzan. Eta agimendunak bakaŕik axatubaz etzan asetu: epaikari zantaŕ gustijak be axatu leuzan.

Kirtsostoma deunari idazki asko be asko egin-egin leutsazan alako ixenbagako atsekabian gotasetan Idazkijetan ikusten dogu aŕa samuŕa semeak gentzatu ta gotasetan; bestien nekiak bere-beriak ziran.

Bera il zala jakin lebanian, be, ospe aundijaz egin leban jaupea ta txadonkixunak bere goguaren aldez.

Aldi atako ziñauliak biŕinduta itxi leuzan; Kelestius, Pelagius ta Julianus ixan ziran ziñausle oŕeik.

Jeronima ta Augustin deuna ixan leuzan onduan ziñausle oŕein tentelkerijak ausi ta zatiŕuteko. Oŕegaŕik deun oŕeikaz, be, aizkidetasun aundija ixan leban.

Sendakuntzea gotzañak emon biaŕ daula ta azken-igoŕtzea jauparijak, ebatzi leban eta erabagi be bai Iñoskentzi'k.

Bestina ormataŕ emakumiak eskatuta Gerbasi ta Pertasi'ren omenez txadona iragi leban.

Lotazilan lau bidaŕ gotzañak jauparijak eta egin leuzan; beŕogetamalau gotzain eta ogetamaŕ gotzain egin leuzan.

Amabost uste ixan zan Doipuruba.

AGAREL.

Euzko - Idazle Bazkuna

"Luzear,,'ek diyonez "Abeŕi,,'ren omenaldiya dala-ta bi gauz nastu dira ta egokia litzake berezitzea.

"Abeŕi,,'ren omenaldi egunean nortzuk bildu biaŕ diran, beronen esku utzi du. Omenalduba "Abeŕi" da, ta beroni atsegin izango zayon bezela egitea ongi derizkiot.

Orain erabaki biaŕ dana Euzko-Idazle Bazkunak nortzuk artu ditezken.

Nere iritzi txiro au idatzi auŕetik dakit iñoŕ askok aintzakotzat aŕtuko eztula, baña ezer ez esatea añekua izango daia oldozteak idaztea ausaŕtu nau. Euzkel-Idazle Bazkuna ixazteko dala-ta ain-bat iritzi izpaŕingijak argitaldu dituzte. Iritzi oyek idatzi dituzten denok usteko dute eran aldetik daguala izpide edo aŕazoya.

Bi iritzi aldezten dituzte batzuk eta bestiak: Batzuk diyote, euzko-idazle abeŕtzaliak bakaŕik saŕtu biaŕ dutela bazkun oŕetan; bestiak euzkel-idazle gustiyak sartu biaŕ dutela diyote.

Bi aldetakuak irakuŕi ditut eta bi aldetakuei arkitu diyet izpidea.

Batzuk diyote: ¿Zelan zabalduko diyegu bazkun onetako ateak, gure abeŕi maŕia irauntzeko, azkatasunaren auŕka jarduteko edo biaŕ ba-da euzkera beragatik gaizki esateko darabilkitenai? Iñolaz ezin diteke.

Bestiak diyote: ¿Zelan itxiko diyegu ateak abeŕtzale eztiran euzko-idazliei abeŕtzale eztiralako?

Biyak izpidean. ¿Zeñi jaŕaitu?

Bateri edo bestiari jaŕaitzea baña egokiyagua izango da bi iritziyak elkartzen alegintzea, ta etzait zala iruitzen bi aldetatik apuŕbat lasaitu ezkeroz.

Abeŕiyaren ezaungaŕi bereziyenak abenda edo odola ta ele edo izkera dira. Euzkeltzale ona darak bi ezaugaŕi berezi oyetatik bat lantzen du, beraz, bere ustez izango "separatista" baña bai abeŕtzala edo abeŕtzale erdi beintzat. Abeŕi ateak zabaldu dizazkieke.

Ontan, euzko idazle abeŕtzaliak bakaŕik bazkuna irazi biaŕ duten iritzidunak lasaitu biaŕ dute.

Bestiak beŕiz ezagutu biaŕ dute euzkera darabiltenak, ez abeŕtzaliak diralako, ez euzkera maŕe dutelako, oztetza eŕezago atzipetzeaŕen dazik, ezin ditezkela bazkun onetan saŕtu.

Abeŕtalia, obetogo esateko, "separatistea" ez izatea azketsi dizazkieke, baña ezin dizazkieke azketsi abeŕiyaren aurka ta biaŕ ba-da euzkera beraren auŕka lan egiteko euzkera aprobetxatzen dutenai.

AŔI GOTZON.

EUZKO
JEL-ASTEROKO IZPAŔINGIJA
Larunbatetan agiri ixaten da
Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.

"BIYONA" LUGINTZA-ETXALDIA (Irun'en, Ilno. 313'an.)
2.000 "Leghoru" - oluak aŕautza - iminŕiak zenbatzeko abijakaz. Txiŕak atarateko aŕautzak saltzia. Olaskotxu iayopaŕijak. Iru ilabeteko olandatxubak.

Joyería-Platería-Relojería
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
Legazpi, 10. — DONOSTIA

ARIETA BITXIZALEA
Pitxilegia-Zillartegia-Gabeukaztegia
BITX'AK EGIN ETA BERRITZEN DITU
Urrutizkiña, 13.777.

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagillea
Garibay. 13 bis. 2.° - DONOSTIA

Léase EUZKADI

:- FONDA :- RESTAURANT LA ESTRELLA
de RUFINO DE MENDIZABAL
Abonos:
30 COMIDAS, 90 PESETAS
Sopa, tres principios y postre
María Muñoz, número 6. Tlf. 12.673
(Enfrente de la Audiencia)

BIOTZ-BEGIETAN
Libro de poesías con traducción castellana
Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

J. M. Sansinenea
Enfermedades de infancia
Garibay, 5, 2.° Teléfono, 12.463.
DONOSTIA.

Dr. L. ZURIARRAIN
Corazón y pulmones. Rayos X.
Consulta de 11 a 1 y de 3 a 5.
Oquendo, 28, 4.°. T. 12.662. Donostia

DR. VIDARTE
Sistemas nerviosos y mentales.
De 10 a 12 y de 2 a 5.
ELCANO, 10, segundo. -- Donostia.

F. LOIDI ZULAICA
ESPECIALISTA EN ENFERMEDADES DE LA PIEL Y SECRETAS
ALAMEDA, 6, 1.°. - Tl. 12.929. - Donostia

Dr. ZUBIA
Especialista en enfermedades de OIDOS, NARIZ y GARGANTA.
Legazpi, 1, 3.° Teléfono, 11.908. Donostia

J. I. Labayen
ESPECIALISTA
Enfermedades de pulmón
Alameda, 7, primero. — DONOSTIA

R. REZABAL
DENTISTA
Fuenterrabía, 4-1. - Donostia

ULTRAMARINOS
Elicegui Hermanos. — Casa Delbos.
LEGAZPI, 4 y 6. — Teléfono, 100-91.
DONOSTIA

ALMACENES LASAGABASTER
TEJIDOS Y NOVEDADES
DONOSTIA

Droguería y Perfumeria
MANUEL ALVAREZ MUGICA
Pinturas especiales de carrocería
Miracruz, 18 y 20. Tl., 10.618
Donostia

V. GARAIZABAL
Enfermedades del aparato digestivo y nutrición. Rayos X
Certificados para la cura de aguas
ZESTONA GIPUZKOA

Arin y Embil
Muebles. — Orio. Teléfono, 7
Casa muy recomendable

Elósegui - Arriola
Huesos, Articulaciones, Deformidades
Prim, 27, segundo DONOSTIA

EMAKUMES...
Visiten el salón de señoras de MARY ZAPIAIN
Ultimos adelantos
Easo, 7. -- DONOSTIA. -- T. 11.020

La Villa de Bilbao
Muebles, camas aluminio, hierro, latón. Coches niños. Relojes pared.
Aldamar, 2. T. 10.755. DONOSTIA

Eguilegor y Beorlegui
Cafés tostados
Garantizados puros
Urbieta, 49. Teléfono, 15.192
DONOSTIA

DENTISTA
ALVAREZ MUJICA
Legazpi, 9, 1.° - Teléfono, 13.355
DONOSTIA

ESTACION DE ENGRASE A PRESION - VULCANIZADOS
Garage Aracama
A. Miramón, 6 - Tl. 13.988 - DONOSTIA

IRULEA
Lencería.—Géneros de punto.—Confección. Mayor, 7. Teléf. 16.029. DONOSTIA

Bazar Médico Ortopédico
FAJAS Y BRAGUEROS
Hernani, 1. Teléfono, 15.730
Instrumental médico Donostia

PANIFICADORA LA ESTRELLA
Embeltrán, 2 y 4. — DONOSTIA
Ocho sucursales. - Servicio a domicilio.
Llámenos al teléfono 10.023

BAZAR KINTIN
Juguetes, vajillas y artículos para regalos.
Urbieta, 29. — DONOSTIA

FASHION
Gizonesko - jantzi, korbata eta abar. Joskindegia.
Miracruz, 1. Urrutizkiña 13.682'garren.
DONOSTIA

Confecciones "Onena"
Tejidos y confecciones de ropa blanca.
PASAJES (Guipúzcoa)

BAR RESTAURANT
«INTZA»
Servicio a la carta
Esterlines, 12. DONOSTIA. T. 15714